

# INDARKERIA MATXISTA ETA SEXU-ERASOAK JAİETAN?



## SEXU-ERASOAK

- Beste pertsona baten askatasun sexualaren aurka, baimenik gabe gauzaturikoak; indarkeria edota larderia erabiltzen delarik. Emakumeen edota LGTBI+ pertsonen askatasunaren aurkako erasoak izaten dira; eraso hauek Zigor Kodean\* barneraturik daude.
- Zirriak egitea, exhibizionismoa, desiratu gabeko hurbilketak, presio sexualak, bortxaketak... izan daitezke.

## ZER DA ONESPEN SEXUALA?

- Erlazio sexualak mantentzea onartzea, modu **ASKE** eta **KONTZIENTEAN**, berdintasunean.
- Inplikaturako pertsona **GUZTIEK** hau ematea **AUKERATU** behar dute eta iritziz aldatuz gero **UKATU** egin daitezke.
- Soilik **“BAI” DA BAI.**

## ERASOEI BURUZKO MITO BATZUK...

**“Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzea da erasoak ematearen zergatia”**

Drogak eta alkohola ez dira bortxaketa bat eragiteko aitzakia. Kontsumitzeak ez ditu pertsona oldarkorrek sorrarazten, soilik desinhibitu eta jada direnaren gaineko kontrola murrizten du.

**“Herri honetan ez dago eraso homofoborik, hori beste garai bateko arazoa da”**

Egia da egun ez direla atxilotzen pertsona homosexualak, baina transexualak, lesbianek, gayek eta pertsona intersexualak diskriminazio eta erasoak jasaten dituzte beraien orientazio sexual, nortasun edo genero adierazpenagatik.

## INDARKERIA MATXISTA: ZER DA?

- Giza Eskubideen urraketa larria dira, zeinak, gehien bat, emakume eta LGTBI+ taldeko pertsonen eragiten dien; hau da, gizartean ezarritako araua jarraitzen ez duten pertsonen ere eragin egiten die indarkeria matxistak: Lesbianak, Gaiak, Transexualak, Trasgeneroak, Bisexualak, Intersexualak eta genero araua hausten duten beste pertsona batzuk (+).
- Bere **HELBURUA**: jarrerak kontrolatzea eta botere harremanen arteko desberdintasunak mantentzea. Horren bidez pertsonen askatasuna mugatuz.
- **ZERGATIA**: Emakumezkoa edota LGTBI+ taldeko pertsona izan eta gizartean “normaltzat” jotzen dena ez betetzeagatik; hala nola gizarteak ezartzen duen bezala ez janzteagatik, hitz egiteagatik, harreman motengatik...
- **EGILEAK**: egintza hauek gauzatzea erabaki eta zigorgabetasunez joko dezatela uste duten gizonezkoak.
- **ONARTU EGITEN** dituzte: egoera hauen aurrean isilik gelditzen den, erasotzailearen jarrerari barre egiten dion, “ez da horrenbesterako” esaten duen edo emakumeei edota LGTBI+ taldekoei errua leporatzen dien pertsona oro.
- **ADIBIDEAK**: gutxietsi, iraindu, umiliatu, gaitzetsi, laudorioak botatzea, aspektu fisikoak balioztatu edo kritikatzeko; irain tranfoak/lesbofoak/homofoboak, bere gorputza igurtzea, ukitzea, jarraitzea, jazartzea eta beldurra eta deserosotasuna sar dezaken beste eskatu gabeko edozein jokaera.
- **EMAKUMEAK** edota LGTBI+ pertsonak ez dira beldurrarekin jaiotzen, hau izatera erakusten zaie eta ikasten dute.

**EZ die soilik eraso jasan duten pertsonen eragiten, GIZARTE OSOARI baizik.**

*\*Gaur egungo Zigor Kodeak horrela definitzen ditu: Norbaitek, indarkeriaz edo larderiak, beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka egiten badu; indarkeriaz jotzen direlarik indarkeria fisikoaren edo larderiaren erabilera, eta baita, biktimarengan zerbait txarra gertatuko zaionaren beldurra eragiten duten jarrera psikologikoak eta biktimari edo bere inguruko jendeari zerbait egingo dionaren mehatxuak.*

- Harreman sexualak dirauen bitartean iritziz alda daiteke. Ez da egin nahi ez den ezer egin behar eta nahi hori **ERRESPETATU** egin behar da.
- Ez kezkatzeak edo erresistentziarik ez jartzeak ez du esan nahi baimena ematen dagoenik; isiltasunak ere ez du esan nahi baimenik dagoenik.

Azken urteetan, Euskadin LGTBI+ taldeko pertsonen jasan dituzten eraso kopurua oso kezagarria da.

**“Gaur egun dena daukate erasotzat, gizonok ezin izango dugu ezta ligatu ere egin”**

Agian, nola ligatu behar dugun birpentsatzeko momentua da: beti rollo onean joatea, beste pertsona harkor dagoen ala ez begiratzea eta, ez badago edo tontea ez bada harago joaten, **INOIZ** ez haserretzea.

**“Ez dauka inor bortxatzeko beharrik, zeren, mutil oso galant eta atsegina da”**

Bortxaketek eta sexu-erasoek, orokorrean, ez dute desira sexualarekin zerikusirik izaten; erasotzailearentzat emaku-

me bat kontrola dezakela besteei eta bere buruari erakusteko balio duen boterearen erabilera bat dira.

**“Biktima gehienak ezezagun batek bortxatuak dira eta orokorrean jendartean baztertutako gizon “zoroak” izaten dira bortxatzaileak”.**

Ezezagunek soilik bortxaketan %13a\* eragiten dutela kalkulatzen da, nahiz eta gehien salatzen direnak izan. Bortxaketa gehienak familia etxeetan, lantokian, aisialdi espazioetan edota eskolako eremuan ematen dira. Ez dauka gizonezkoaren estatus maila sozial, ekonomiko, lan-egoera edota hezkuntza mailarekin zerikusirik.

*\*Iturria: Andaluziako Emakumeen Erakundea.*

## ZER EGİN DEZAKET HAUEK SAIHESTEKO?

### NESSAK eta LGTBI+ taldeko pertsonak

Zure gorputza zurea da eta **BETI** duzu **BAI, EZ, ORAIN EZ, HONAINO, EZ DUT NAHI JARRAITU, GAIZKI SENTITZEN NAIZ, PENTSATU EGİN NAHI DUT...** esateko eskubidea.

Egiten edo egin duzun **EZER** ez da norbaitek zu erasotzeko arrazoi.

Fida zaitez zure senaz; ez ezazu egin deseroso sentiarazten dizun ezer.

Soilik zuk dakizu zerbait gustuko duzun, deseroso edo erasoturik sentiarazten badizu.

Zure burua babesteko eskubidea duzu. Eskatu laguntza behar duzunean.

### MUTILAK

**Zer egin dezakezu espazio publikoak emakumeen edota LGTBI+ pertsonen aurkako guneak ez izateko?**

**Zaindu itzazu zure jarrera eta egintza matxistak: hala nola, “biluzten” duten begiradak, bromak, lerdentasuna edo zurea EZ den espazioaren inbasioa.**

**Emakume edota LGTBI+ pertsonak iraindu edo objektu bezala tratatzen dituzten lagun edo kuadrillei aurre egin.**

**Lagun ezazu zure ingurua errespetuzkoa eta segurua izaten.**

Ulertu pertsonen **NAHI DUTENEAN EZ** esateko **ESKUBIDEA** dutela eta zuk hori errespetatzeko **BETEBEHARRA** duzula.

Pertsona batek zurekin sexua izan nahi badu, jakingo duzu; ez dago “tematzeko” beharrik. Soilik **“BAI”** da **BAI**.

Gehiegi edan duen pertsona bat ikusten baduzu, ez zaitez bere egoeraz aprobetxatu. Mozkorra, drogatua, konorterik gabe, ondo ezik edo lo badago **EZ** da! Norbaitekin oheratzeko norbait hori mozkortzen edo drogatzen saiatzea, ez da ligatzea.

Edaterakoan zure burua “kontrolatzea” zaila iruditzen bazaizu... ez ezazu edan. Uste baduzu jaietan ez zarela zure burua “kontrolatzeko gai”, ez zaitez atera.

Ez ezazu inor bere baimenik gabe ukitu, heldu, txistukatu, ez iezaiezu komentario lizunik egin...

## ZER EGİN ERASO BATEN AURREAN?

### LEKUKOA BANAIZ

- Pertsona bat arriskuan egon daitekeela uste baduzu, laguntzarik behar duen galdetu iezaiozu edota polizia deitu.
- Lokal batean gertatuz gero, arduradunari jakinaraz iezaiozu.
- Erasotzaileari argi utzi bere jarreraren aurka zautela.
- Pertsonak esaten dizuna entzun ezazu, erakutsi iezaiozu zure laguntza.
- Epaia **EKIDITU**. **EZ** ezazu kontaktzen ari dena zalantzan jarri.
- Ez ezazu pertsona bakarrik utzi berak horrela nahi duen bitartean edo bakarrik baino zurekin hobeto dagoela uste duzun bitartean.
- Galde iezaiozu ea laguntza medikua edo salaketa nahi dituen. **ERRESPETATU** bere erabakia.
- Sexu-erasoen kasuan, azal iezaiozu garbitu, jan, arropa aldatu...egiten badu frogak ezaba ditzakela.
- Erasoa jasan duenari galdetu ea salatu nahi duen edo ez.

### ERASOTZEN BAZAITUZTE

- Ez ezazu **INOIZ** pentsatu gertatu zaizunaren arduraduna zarenik.
- Deseroso sentitzen bazara, jartzaturik sentitzen bazara edo arriskuan egon zaitezkeela uste baduzu, eskatu laguntza ingurukoei. **EZ ZAUDE BAKARRIK!**
- Ahal bezain pronto leku seguru batera joaten saiatu.
- Sexu-erasoa jasanez gero, nahiz eta oraindik ere argi ez izan saiatuko duzun ala ez, gogora ezazu garbitzen bazara, jaten baduzu, zure arropa botatzen baduzu... frogak ezabatzen dituzula.
- Konfiantzako norbaiti abisatu, zurekin egon dadin.

**MUNDU GUZTIAK ASKATASUNEZ GOZATUKO DITUEN LEKU SEGURUAK ERAIKITZEA ZURE ESKU DAGO.**

**UDALTAINGOAK** 94 403 48 88

**LARRIALDIAK:** 112

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZUA 24 ORDU (DOAKOA)**  
900 840 111

